



GAINTZAKO UDALA
(Gipuzkoa)

2018UEKI0001

DEIALDIA

Honako honen bidez deialdia luzatzen da aurtengo udan haurrekin egin asmo diren jardueretan dinamizatzaile eta begirale lanetarako pertsona aukeratzeko.

Hautagaiek bete beharreko baldintzak:

- 1) 18 urtetik gorako adina izatea
- 2) Euskara ondo menperatzea
- 3) Haurrekin dinamizatze eta begirale lanetarako gaitasuna izatea.
- 4) Herritarra izatea baloratuko da.

Lanaldia: egunean 4 ordukoa izango da. Plangintzarako beharreko orduak barne direla.

Epealdia: 2018ko uztailaren 02tik uztailaren 25 arte. (Biak barne)

Egin beharreko lanak:

- 1) Haurrentzako jolas eta eskulanen plangintza egin eta burutzea

Interesaturik zaudetenok eman izena udaletxean, bulego ordutegian.

Izena ematerakoan egingo diren ekitaldiei buruzko memoria eta plangintza aurkeztu, baita bakoitzaren curriculum-a ere; horien arabera hautaketa egin ahal izateko.

Baloratuko dira:

- Herriarekiko eta herri ezagutarazteko egiten diren planak.
- Proposatutako eskulanen berezitasunak
- Naturarekin loturiko planak
- Berdintasuna jorratzen duten aktibitateak.

Izena emateko epea: 2018ko maiatzaren 10arte.

Gaintzan, 2018ko apirilaren 27an.
Alkateak;



Dokumentu honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:
<https://munigex.net/r/0/37/AAAAAPRS9>